


Badaude guraso bakarreko
famiak, homoparentalak,
berriro osatu direnak, uztartu
egin direnak...

¡¡ERA ASKOTAKOAK!!

Eta era askotakoak dira familia
osatzeko moduak: adopzioa,
laguntza bidezko ugalketa,
ugalketa naturala, harrera...



AZKEN BATEAN


Ikastetxea gure gizartearen isla leiala da. Errealitate desberdinak bistaratzeko baditugu eta normaltzat hartzen baditugu, ez dugu uste izango eredu tradizionalatik kanpo dauden famiak "desberdinak" direnik, eta pentsatuko dugu: "zein desberdinak diren famiak".



Asociación
Madres Solteras
por Elección



Síguenos: [AsociacionMSPE](https://www.facebook.com/AsociacionMSPE)



www.madressolterasporeleccion.org
asociacionmspe@gmail.com

Subvencionado por:



Familien dibertsitatea

¡Zein desberdinak
diren famiak!



Asociación
Madres Solteras
por Elección

Gizarteak azken urteotan izan dituen aldaketei esker, familia eredu desberdinak sortu dira, eta eredu onartu bakar batetik familien dibertsitatera igaro gara.

Aldi berean, familiei buruzko legeak eta arauak aldatzen ari dira eredu tradizionalean sartzen ez direnen diskriminazioa ahalik eta gehien gutxitzeko. Izan ere, familia tradizioaletik kanpo gaude hautuzko ama bakarrak garenok.

NORTZUK GARA?

Bikoterik gabeko pertsonak gara eta modu askean erabaki dugu umeak edukitzea.

Gaur egun, gure herrialdeko araudiak gure familia propioa eratzeko aukera ematen digu bikoterik gabeko pertsoneri, adopzioaren bidez edo laguntza bidezko ugalketaren teknikak erabilia.

ZERGATIK JOTZEN DUGU HEZITZAILEENGANA?

Eragile aktiboak zaretelako gure seme-alaben heziketan.

Modu integralean eta erantzukizunez hezteko, eskolak ikasleen errealitatea zein den jakin behar duelako.


Sarritan, eskolan gerta daitezkeen egoeretan gure seme-alabak eredu tradizioaletik kanpo dagoen familia batekoak direla nabarmendu daitezkelako, eta ez dugu nahi hori bazterketarako arrazoi izatea.

IRADOKIZUNAK

Familien dibertsitateetik abiatzea, hezkuntzaren arlo desberdinetan eragina daukan errealitatea baita. Hauek dira adibide batzuk:

- Ume bakoitzaren errealitatea zein den jakitea, bere familia modu zehatzean eta egokian aipatzeko.
- Familien dibertsitatearen jakitun izatea ikasgelan hitz egitean, modu transbertsanean lantzea eta material eta baliabide nahikoak eta egokiak erabiltzea.
- Familia eredu guztiak erakustea ikasgelan (karteletan, testu-liburuetan, bibliografian, elkarrizketetan) eta aurreiritzirik gabe hitz egitea eredu tradizioaletik kanpo daude familien inguruan.
- Laguntza bidezko ugalketaren teknikak sartzeko ikasgelan ugalketa lantzen denean. Adopzioaz eta familiako harreraz hitz egitea, familia eratzeko beste modu bat diren neurrian.
- Zuhaitz genealogikoaz hitz egiten denean, familia mota bat ere baztertzeko ez duen ereduak erabiltzea. Denak ez direla lotura genetikoan oinarritzen adieraztea eta beste lotura batzuk sartzeko eta irudikatzen alternatibak bilatzea.

- Etengabeko komunikazioa edukitzea gurasoekin, ikasgelan landuko diren gaiak umearengan eragina izan dezaketela uste denean, familiek gai hori alde aurretik eurekin presta dezaten edo/eta eskolarekin elkarlanean ari daitezen, egoki bada.
- Hizkera inklusiboa eta integratzailea erabiltzea, familien dibertsitatea beti aintzat hartuz. Adibidez, sinadura behar duten inprimaketan "Aita/Ama" eredu aldatzea eta hau erabiltzea: Aita(k), ama(k) edo legezko tutoreak.
- Familiaren eguna ospatzen bada (edo aitaren eta amaren eguna), ikastetxeko umeek errealitatea eta familien dibertsitatea kontuan hartzea.



Zuzendaritza taldea:

Zuengana jotzen dugu gure elkartearen helburuetako bat betetzeak ematen digun poztasunarekin: gizarteari eta bere erakundeei gure familiekin lotutako gaiei buruzko informazioa eta baliabideak eskaintzea.

Azken urteotan gizartean izandako aldaketei esker, mota desberdinetako familiak sortu dira, eta onartutako familia-eredu bakar batetik era askotako familietara igaro gara.

Aldi berean, familiei buruzko legeak eta arauak aldatzen ari dira, eredu tradizionalen sartzen ez diren ereduak diskriminazioa gutxitzeko. Horien artean gaude gu, familia gurasobakar amadunak, bikoterik izan gabe seme-alabak izatea aukeratu baitugu.

Gure ustez, eskola gizartea aldatzeko motorra da eta badaukagu eredu pedagogiko berrien berri. Horregatik uste dugu ezinbestekoa dela elkarrekin lan egitea errealitate guztiak eskolan integratzeko eta LOMCE legeak jasotzen dituen trebetasun gakoak garatzen laguntzeko, batez ere trebetasun soziala eta gizalegearen trebetasuna.

Uste dugu irakasleak eragile aktiboak direla gure seme-alaben heziketan eta horregatik bidaltzen dizuegu triptiko hau, iradokizun didaktiko batzuk proposatzeko, gogoeta eragiteko asmoz; era berean, ikasgelan edo ikastetxean familien sorkuntzari buruz eta horien mota desberdinei buruz egiten den edozein lan aberasteko. Baliabide horiekin, ikastetxean familien dibertsitatea landu ahal izan dadin lagundu nahi dugu.

Ikastetxea gure gizartearen isla leiala da. Errealitate desberdinak bistaratzen baditugu eta normaltzat hartzen baditugu, ez dugu uste izango eredu tradizionaletik kanpo dauden familiak “desberdinak” direnik, eta pentsatuko dugu: “zein desberdinak diren familiak”.

Zuen hezkuntza-komunitatea osatzen duten familia guztiak bertan ordezkaturatuta sentitzea espero dugu.

Hartu agur bero bat.



Asociación MSPE
NIF: G-85083616
euskadi@madressolterasporeleccion.com
www.madressolterasporeleccion.org
Móvil: 622 323 173